

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Kinina

LANDAREEkin EGINDAKO alkohol-dun edarien bolada hemen da. Neure inguruan behintzat puri-purian, ur gaineko bitsetan dabilta. Esentzia artifizialekin egindako sagar-, udare-, mertxika-likore eta antzekoak, batetik. Eta naturalak bestetik. Azken horien artean erregina gina. Hobe esanda, gin tonica. Koktel horren historiaz edo tonika xeblebren baten gorabeherarik edo honako edo halako ginebran bitxikeriarik ez baldin badakizu mozoloaren pare azalduko zara koadrilan. Ez dakit zer gaitzi aurre egiteko gin tonica ingelesek asmatu zutela entzuteaz asper-asper eginda nago; egia den ala ez berdin du. Boladakoak gogaitzen nau. Zahardadea ote?

Bermutak bezala tonikak kinina du, zuhaitz baten azaletik sortzen den alkaloide indartsua. Kininak osasungarri egiten ditu bi edariak, tamainan, noski.

Kinina zuhaitza *Cinchona* generokoa da. Izen horrek ere historia xelebrea du. 1638an Perun Espainiako erregeordea zen Don Luis Gerónimo Fernández de Cabrera de Bobadilla Cerda y Mendozaren emaztea, helgaitzak edo malariak jota zena kinina zuhaitzaren aza-

lak sendatu omen zuen. Agintariaren lehen edo bigarren emaztea ote zen, espainiar historialariak ez dira ados... Guri bost! Kanpoko historialariek, ordea, argi dute: ez zen horrela gertatu. Erregeordearen menpeko gudari eta soldadu-jesuitek, indigenek zuhaitz honen azala sendagai gisa erabiltzen

zutenaren berri bazuten, agidan. Baina errege ustekoa erregeurde. Eta urdea Chinchongo laugarren kondea izan. 1748an Linneok landareen lehen izendegia osatu zuenean “chinchona” jarri nahi izan zion izena, baina italieraren ahoskera hartu zuenez “cinchona” deitu zuen. Gaur ere halaxe du izena kinina zuhaitza eta bere senideen genero horrek, *Cinchona*. Hala ere, euskal hiztegi gehienek “chinchona” deitzen dute. Hemen dugun erregeurdeak ere lana ongi egiten duenaren adierazle.

Hara, hemen tonikaren kininaren historia bat. Ingelesek baino dezente lehenago erabiltzen zuten jesuitek eta Ameriketako indigenek. Hurrengo gin tonica hartzen dudanean haren gaineko kontu eta komeria gehiago idatziko dizkizut, zeuk hartzen duzunean ahoa neurri hitz egiten duen horietakoren bat lotsagarri utz dezazun...



Kininaren zuhaitza.



Lilak gora-behera

Syringa vulgaris, lilak udaberriaren bihotzaren muina dotoretzen du. Usain txoragarria zabaltzen du eta lore-kolore biziak hotza uxatzen. Hostoz janzten denean azken ila-

rrak erein eta letxuga eta epelzale diren tankerako barazkiak

aldatu behar dira. Loraldia ximeltzen denean kuiak eta era guztietako kurkubi eta kalabazak erieteko sasoia da. Baratzezainaren egutegian lilak aldean behar du, bistara. Euskaldunok amañi-lilia deitzen diogu lilaren liliari. Ezin etxekoagoa izan...



ERICA
JARDINERIA S.L.

☎ 605 727 429
info@ericajardineria.com
www.ericajardineria.com